



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián



EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO BALDINTZEN AGIRIA. HORIEK ZUZENDU BEHAR DUTE AU LO.05 TXOMIN ENEA HIRIGINTZA ESPARRUKO a.300.6 PARTZELAN 162 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUKO ERAIKIN BAT EGITEKO OBRAREN ZUZENDARITZARAKO AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.

ITA 00000



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

AURKIBIDEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA
2. ARTIKULUA.- LIZITAZIO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA
3. ARTIKULUA.- ZERBITZUAREN FINANTZAKETA
4. ARTIKULUA.- ORDAINBIDEA
5. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN INTERPRETAZIOA
6. ARTIKULUA.- JURISDIKZIOA
7. ARTIKULUA.- DATU PERTSONALEN BABESA

II.- DEIALDIA ETA ESLEIPENA ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZAK

8. ARTIKULUA.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA ERA. KONTRATUAREN IZAERA
9. ARTIKULUA.- LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK:
 - 9.1 GAITASUN BALDINTZAK
 - 9.2 AHALMENA
 - 9.3 KAUDIMEN EKONOMIKO, FINANTZARIO ETA TEKNIKOARI BURUZKO BALDINTZAK
10. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA
11. ARTIKULUA.- KONTRATAZIO ORGANOA. EBALUAZIO BATZORDEA
12. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK IREKITZEA
13. ARTIKULUA.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK
14. ARTIKULUA.- KONTRATUA ESLEITZEA. ESLEIPENAREN AURREKO DOKUMENTAZIOA
15. ARTIKULUA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

III. KONTRATUA GAUZATZEA

16. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ARDURADUNA
17. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN IRAUPENA
18. ARTIKULUA.- BITARTEKO PERTSONALAK ETA MATERIALAK
19. ARTIKULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA
20. ARTIKULUA.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
21. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ALDAKETAK
22. ARTIKULUA.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA
23. ARTIKULUA.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA
24. ARTIKULUA.- LANAK AMAITZEA ETA HORIEK HARTZEA
25. ARTIKULUA.- BERMEA ITZULTZEA

ERANSKINAK:

- I.a ERANSKINA.- BEHIN BETIKO BERMEAREN ABAL EREDUA
- I.b ERANSKINA.- BEHIN BETIKO BERMEAREN KAUIZIOKO ASEGURU KONTRATUA
- II. ERANSKINA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA
- III. ERANSKINA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA, ALDI BATERAKO ENPRESABURU ELKARTEAK AURKEZTEN DIRENEAN
- IV. ERANSKINA.- JAKINARAZPENAK JASOTZEKO BITARTEKO LEHENETSIA AUKERATZEA



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1. Kontratu honen xedea da aholkularitzako eta laguntza teknikoko zerbitzuak egitea AU “LO.05 Txomin Enea” hirigintza esparruko a.300.6 partzeletan 162 etxebizitza (dagozkien garaje eta trastelekuekin batera) babes publikoko erregimenean gaitzeko eraikin baten eraikuntza obren zuzendaritzarako.
2. Adierazitako zerbitzuak egitean, bete egingo dira Bieme Arkitektura eta Estudio Urgari enpresek idatzitako gauzatze proiektuan, agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian agertzen diren baldintzak. Dokumentu horiek guztiak kontratuan barne hartuko dira.
3. Kontratua pribatua da eta honako hauek arautuko dute:
 - Ekonomia eta Administrazio Baldintzen Agiri hau.
 - Baldintza Teknikoen Agiria.
 - 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testuategina onartzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen araudi orokorra onartzean duena, aplikatzekoa denean.
 - Administrazio zuzenbidearen arauetako ordezkioak diren zuzenbide pribatuaren arauak.

Kontratatik ez jakiteak kontratuari zein araudi aplikatzekoa zaion ez du hura salbuetsiko arau hori bete beharraz.

2. ARTIKULUA.- LIZITAZIO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

1. SPKLTBaren 88. artikuluan ezarritakoari jarraituz, oinarrizko lizitazio aurrekontu hau finkatu da:
 $380.843,21 \text{ €} \text{ gehi } 79.977,07 \text{ €} \text{ (% 21eko BEZa)} = 460.820,28 \text{ €}$
2. Kontratuaren prezioa hura esleitu eta formalizatzearen ondoriozkoa izango da, eta ez du inola ere gaitutuko lizitazio aurrekontua. Prezio itxia izango da, eurotan adierazi beharko dena eta bere baitan



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

hartuko duena kontratistak bere gain hartzea kontratuaren eta agiri honen ondoriozko betebeharrak guztiak. Balio erantsiaren gaineko zerga bereizitako kontu sailtzat sartuko da.

3. Kontratuaren prezioan bildutzat hartuko dira aplikatzekoak diren mota orotako gainerako tributuak, zergak eta kanonak, baita esleipendunarentzat sortzen diren gastu guztiak agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz.
4. Eraikuntza obraren beraren kostuan edo iraupenaldian izan daitezkeen aldaketek ez dute eraginik izango kontratuaren prezioan.

3. ARTIKULUA.- ZERBITZUAREN FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, finantzaketa aurreikusita dago aribideko urteko aurrekontuaren kargura. Era berean, aurrekontu arloan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du beharrezko kredituak erreserbatzeko eraginpean egon daitezkeen etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan.

4. ARTIKULUA.- ORDAINBIDEA

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Erregistroan faktura xehatua aurkeztu eta Sail Teknikoaren arduradunak berori adostu ondoren ordainduko da prezioa.
2. Agiri honen xede den eraikinaren bidezko eraikuntzako obra ziurtagiriak aurkeztu ahala egingo da ordainketa, benetan gauzaturako obrekiko modu proportzionalean. Dena den, % 20 atxikiko da azken likidaziorako.
3. Kontratistak ordainketa jasotzeko eskubidea du hitzartutako prezioaren arabera, hau da, esleipen prezioan. Prezio hori finkoa izango da obraren azken likidazioa edozein dela ere.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

5. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN INTERPRETAZIOA

1. Kontratazio Organoak eskumena du kontratua, agiri hau eta baldintza teknikoei buruzko agiria interpretatzeko, baita kontratuaren indarraldian sortzen diren auzi guztiak ebazteko ere, haren interpretazioari, aldaketari, ondorioei eta iraungipenari dagokienez, Legean adierazitako mugen barruan eta bertan ezarritako baldintzei lotuta.
2. Kontratazio Organo horrek lehen adierazi diren bere eskumenen jardunean ematen dituen erabakiak berehala betearazleak izango dira.
3. Kontratua gauzatzean irizpide desberdinik balego lanak egiteko erari edo kontratua nahiz horren edozein alderdi tekniko edo ekonomiko interpretatzeari dagokionez, kontratista Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren erabaki teknikoaren mende jarriko da.

6. ARTIKULUA.- JURISDIKZIOA

1. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena sor litezkeen gatazkak ebazteko kontratua prestatu eta esleitzeari dagokionez, eta kontratazio errekurtsu bereziekin lotutako ebazpenei dagokionez. Kontratua gauzatzearekin lotuta sortzen diren auzi guztiei dagokionez, berriz, jurisdikzio zibilak izango du eskumena.
2. Lizitatzailleek uko egingo diote euren foruari (baldin balute) eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa mende dagoen epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira.

7. ARTIKULUA.- DATU PERTSONALEN BABESA

1. Enpresa esleipenduna eta horren pertsonala behartuta daude sekretu profesionala gordetzera kontratua gauzatzearen ondorioz ezagutu ahal izango dituzten datu pertsonalei dagokionez, eta betebeharrak



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

- iraun egingo du kontratua amaitu ondoren ere, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluari jarraituz.
2. Esleipendunak bere pertsonala prestatu eta jakinarazi beharko dio zerbitzugintzan euren zereginak egitean datuen babesaren alorrean dituen betebeharren inguruan, batik bat sekretua gordetzeko betebeharrei dagokienez; eta esleipenduna euren enplegatuen ez betetzearen ondoriozko arau hausteen erantzule izango da.
 3. Esleipendunak eta bere pertsonalak, kontratua betetzeko egiten dituzten zerbitzuetan, zorrotz bete beharko dituzte euren lana egiten duteneko bulegoen segurtasun dokumentuak.
 4. Esleitutako kontratuak berekin baldin badakar datu pertsonalak tratatzea, bete-betean errespetatu beharko dira datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta berori garatzen duen araudia, SPKLaren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

II.- DEIALDIA ETA ESLEIPENA ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZAK

8. ARTIKULUA.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA ERA. KONTRATUAREN IZAERA

1. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginekoko 190. artikuluan eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren barne aginduetan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da.
2. Agiri honen arabera egiten den kontratua pribatua izango da. Zerbitzuetako kontratutzat kalifikatzen da eta agiri honetan jasotako artikuluek arautuko dute; eta ezarrita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatutakoari jarraituko zaio: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra eta, hala badagokio, aplikatzekoak diren gainerako arauak.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

3. Prestaketari eta esleipenari dagokienez, honako hauek arautuko dute kontratua: Ekonomia eta Administrazio Baldintzen Agiri honek, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontratatzeke barne jarraibideek eta, bi dokumentuetan berariaz ezer ezarriko ez balitz, SPKLTBaren 157., 158., 159. eta 190. artikuluetan ezarritakoak, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa administrazio publiko ez izatearen ondoriozko dagozkion egokitzapenekin.
4. Ondorioei eta iraungipenari dagokienez, kontratua honako hauek arautuko dute: Ekonomia eta Administrazio Baldintzen Agiri honek eta, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontratatzeke barne jarraibideetan ezarrita ez dagoen guztirako, sektore publikoko erakundeek egindako erregulazio harmonizatuari lotutako kontratueterako SPKLTBan berariaz ezarritako arauak (baldin eta erakunde horiek esleitzeko ahalmena badute eta administrazio publiko ez badira), HAKLAOak (adierazitako legean ezarritakoaren aurkakoa ez den guztian) eta, ordezkotzat, aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauak.
5. Erregulazio harmonizatuari lotutako kontratua denez, aplikatzekoa izango da SPKLTBaren 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako berrikuste erregimen berezia. Donostiako Udalaren edota Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean aurkeztuko da berrikuste erregimen berezia.

9. ARTIKULUA.- LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK

9. 1.- GAITASUN BALDINTZAK

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatzeke ahalmena dute jarduteko gaitasun osoa duten, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten eta sektore publikoarekin kontratatzeke debekua dakarren inolako egoeratan sartuta ez dauden pertsona naturalek edo juridikoek (egoera horiek SPKLTBaren 60. artikuluan zerrendatzen dira).
2. Kontratatzeke debekua dakarren egoera batean sartuta ez egotearen frogari dagokionez, adierazitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 73. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

9.2.- AHALMENA

1. Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuen zerbitzuak haien estatutuen edo eratze arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.
2. Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, halaber, aldi baterako osatzen diren enpresaburu elkarteek, SPKLTBaren 59. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi baterako enpresaburu elkarteko enpresaburu bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala dituela ziurtatu behar du, eta horretarako, ondorengo klausuletan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuko du. Gainera, dokumentu pribatu batean adieraziko ditu enpresaburuaren izenak eta ezaugarriak, bakoitzak duen partaidetza eta kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango den pertsona edo erakundea, eta Aldi Baterako Enpresa Elkarte gisa elkartzeko konpromisoa hartzen dutela adieraziko du, halaber (HAKLAOaren 24. artikulua). Agiri hori Elkarte osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuko dute.
3. Ezin izango da lizitazio honetan aurkeztu agiri honek xede duen eraikina egiteko obra kontratuaren enpresa esleipenduna, ezta horri lotutako enpresak ere (SPKLTBaren 145. artikuluan zehaztutakoan ildotik).
4. Proposamenak aurkezteak berekin dakar lizitatuzaileak baldintzarik gabe onartzea agiri honen klausulak eta Administrazioarekin kontratatzeke exijitutako baldintza guztiak betetzearen erantzukizunpeko aitortpena egitea.

9.3.- KAUDIMEN EKONOMIKO, FINANTZARIO ETA TEKNIKOARI BURUZKO BALDINTZAK

1. SPKLTBaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresaburuek egiaztatu egin beharko dute betetzen dituztela kaudimen ekonomikoa eta finantzarioari eta profesional edo teknikoari buruz zehazten diren gutxieneko baldintzak, eta honela egiaztatuko dituzte:
 - a) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeke, arrisku profesionaletarako kalte-ordain aseguru bat eduki beharko da, eskaintzak aurkezteke epearen amaiera arte indarrean egongo dena. Gainera,



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behe / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

kontratuaren gauzatze aldi osoan haren estaldurari eustea ziurtatuko duen berritze edo luzapen konpromiso bat aurkeztu beharko da.

- b) Kaudimen teknikoari dagokionez, lizitatzailleak behar adina langile izan beharko ditu kontratuaren xede diren lanak egoki egiteko, gutxienez obra zuzendari bat eta obraren gauzatze zuzendari barne direla, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Obra zuzendariak antzeko eginkizunetan azken 5 urteetan esperientzia duela egiaztatu beharko du, eta, aldi horri dagokionez, egiaztatu beharko du ere:

- Obran gutxienez 60 etxebizitza zuzendu izatea.
- 30 etxebizitzatik gorako sustapena zuzendu izatea.

Obraren gauzatze zuzendariak, orobat, antzeko eginkizunetan gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatu beharko du.

Gainera, lizitatzailleak beharrezko laguntza guztiak izan beharko ditu agiri honetan deskribatzen diren eginkizunak betetzeko. Zehazki, azpiegitura eta instalazioetan, eta geoteknian espezializatutako aholkularitza eduki beharko du. Era berean, topografo baten laguntza izan beharko du.

- c) Halaber, lizitatzailleak lana zuzen gauzatzeko beharrezkoak diren bitarteko material eta tekniko guztiak eduki behar ditu (horiek eskainitako prezioetan sartuta daude).

2. Ikusirik Europako Parlamentuaren 2014/24/EB Zuzentarauaren 59. artikuluan eta Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Exekuzio Erregelamenduan (EB) ezarritakoa, artikuluan honetan ezarritako hasierako dokumentazioaren ordez, lizitatzaillearen erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu **ahal izango da**. Horretarako, erregelamendu horretan adierazitako Europar Batasuneko Kontratuzioko Agiri Bakarraren (aurrerantzean, EKAB) formulario normalizatua bete beharko du (haren II. eranskinean dago jasota), aipatutako erregelamenduan I. eranskin gisa adierazten diren jarraibideen arabera.

Formularioa helbide honetan lortu ahal izango da:

<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lnq=es>



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

3. Aurrekoa gorabehera, agiri honen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, EKABaren bitartez formulatutako erantzukizunpeko aitopenen ordez, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatuak, kontratua esleitu aurretik, Erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztagiri edo dokumentu ofizialak aurkeztu beharko ditu.
4. Adierazitako kaudimen irizpideak eze betetzeak berekin ekarriko du Ebaluazio Batzordeak lizitatuak prozedura honetatik kanporatzea.
5. SPKLTBaren 63. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresaburua, kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da. Ondorio horietarako, bitarteko horien jabe den enpresarekin sinatutako akordioa gehitu beharko du A gutun azalean.

10. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

1. Lizitazio honen espedientea agerian egongo da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren bulegoetan –Mari kalea, 1, behea, Donostia (20003)–, hura aztertu nahi dutenentzat eskuragarri, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.
2. Leku berean aurkeztu ahal izango dira proposamenak, berrogei egun baliouduneko epean, iragarkia EBAOra igortzen den datatik. Data hori Erakundearen Kontratugilearen Profilean argitaratuko da. Proposamenak hiru gutun azal itxietan entregatuko dira, “A”, “B” eta “C” izenekoetan, beharrezko dokumentazioarekin batera. Gutun azalen kanpoaldean, lizitatuak aurkezten deneko kontratuaren izena adieraziko da: **“Aholkularitzako eta laguntza teknikoko zerbitzuak egiteko kontratu baten esleipenean parte hartzeko proposamena AU ‘LO.05’ Txomin Enea” hirigintza esparruko a.300.6 partzeletan 162 etxebizitza gaitzeko eraikin baten eraikuntza obren zuzendaritzarako**”. Gainera, enpresaren edo profesionalaren izena eta proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak adierazi beharko dira. Barrualdean, biltzen dituen dokumentuen zenbakizko zerrenda jasoaraziko da, 9. artikuluan zehazten den zenbakikuntzari jarraituz, baita harremanetan jartzeko izendatutako pertsona bat, fax zenbakia edo posta elektronikoko helbidea ere, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak beharrezkoak dituen jakinarazpen edo eskaera guztiak horietara zuzendu ahal izateko.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

3. Ondoren aurkeztutako proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta postetxean epea igaro aurretik entregatu zirela egiaztatu, salbu eta eskaintza postaz bidali zen egunean bertan, hura zein datatan bidali zen egiaztatzen bada posta elektronikoko, telex edo telegrama bidez. Nolanahi ere, adierazitako dataren ondorengo hamar egun natural igaro eta gero eskaintza jaso ez bada, ez da onartuko.
4. Kontratu eskaintzak edo proposamenak eskura entregatzen badira Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren bulegoetan –Mari kalea, 1, behea, Donostia (20003)–, proposamen bakoitza entregatu izanaren agiria emango da. Bertan azalduko dira lizitatuzailearen izena, lizitazio zerbitzuaren izena eta hura aurkeztu izanaren eguna eta ordua. Behin proposamena entregatu ondoren, ezin izango da inola ere atera, eta lizitatuzaileak bere burua behartzen du hura hiru hilabetez mantentzera, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita.
5. Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Halaber, ezin izango du beste batzuekin aldi baterako elkarte proposamenik sinatu, proposamena berak bakarrik edo aldi baterako elkarte gisa aurkeztu badu. Arau horiek urratuz gero, atzera botako dira lizitatuzaileak aurkeztutako proposamen guztiak.
6. Lizitatuzaileak proposamenak aurkeztuz gero, agiri honetako klausulak eta gainerako kontratu dokumentuak onartzen dituela ulertuko da, salbuespenik gabe, eta aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta zerbitzua kontratatzeko exijitzen diren baldintza eta eskakizun guztiak betetzen dituela erantzukizunez aitortzen duela.

A. GUTUN AZALA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA. Honako hauek bilduko ditu:

Lehenik.- Bere izenean nahia ahaldun gisa proposamena aurkeztu duenaren nortasun agiri nazionala.

Bere izenean ari ez bada, edo sozietate edo pertsona juridikoren bat baldin bada, ahalordetzea gehituko da, ordezkatzeko duen sozietatearen edo erakundearen ordezkari agertzeko behar bestekoa. Ahalorde hori Merkataritza Erregistroan behar bezala jasota egongo da, hala badagokio, eta haren indarraldiari buruzko Erregistroaren ziurtagiria aurkeztuko da.

Bigarren.- Lizitatuzailea pertsona juridikoa denean, eratze eskritura edo aldaketaren eskritura, hala badagokio Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatzeko den



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

merkataritza legeriaren arabera inskripzioa exijitzekoa denean (hori guztia behar bezala konpultsatuta). Inskripzioa beharrezkoa ez bada, jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da: eratze eskrituraren edo eratze dokumentuaren, estatutuen edo sorrera egintzaren bidez. Bertan, jarduera arautzen duten arauak zehaztuko dira. Beharrezkoa izanez gero, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

Europako Erkidegoko estatu kideetakoak diren enpresaburu ez espainiarrek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresako egoitzaren lurralde esparruari dagokion Kontsuletzeko Bulegoaren txostena erakutsita. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

Hirugarren.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, honako hauek adierazi beharko dituzte: hura osatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza; kontratutik erator daitezkeen eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango dituen ordezkarien edo ahalduaren izendapena; eta, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoaren dokumentua.

Laugarren.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 60. artikuluan aipatzen diren kontratatze debekuetako bat ere ezarri ez zaiola dioen berariazko adierazpena. Bertan espresuki adierazi behar da egunean dagoela indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan.

Bosgarren.- Kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional eta teknikoaren eskakizunak betetzeari buruzko dokumentazioa, baldintzen agiri honen 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Seigarren.- Atzerriko enpresek kontratutik zuzenean zein zeharka sortzen diren gorabehera orotarako Espainiako jurisdikzio ordena guztietako epaitegi eta auzitegiak onartzen dituztelako berariazko adierazpena aurkeztu behar dute. Lizitzaileari atzerriko jurisdikzioa badagokio, adierazpenean uko egin behar zaio.

Zazpigarren.- V. eranskin gisa agertzen den dokumentua, jakinarazpenen ondorioetarako behar bezala beteta.

Zortzigarren.- Ikusirik Europako Parlamentuaren 2014/24/EB Zuzentarauaren 59. artikuluan eta Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Exekuzio Erregelamenduan (EB) ezarritakoa, lehen, bigarren,



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behe / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan ezarritako hasierako dokumentazioaren ordeztu, lizitatuzailearen erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu ahal izango da. Horretarako, erregelamendu horretan adierazitako Europar Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarraren (aurrerantzean, EKAB) formulario normalizatua bete beharko du (haren II. eranskinean dago jasota), aipatutako erregelamenduan I. eranskin gisa adierazten diren jarraibideen arabera.

Formularioa helbide honetan lortu ahal izango da:

<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/esp/filter?lnaq=es>

Nolanahi ere, Kontratazio Organoak, prozeduraren bukaera ona bermatzeko, lizitatuzaileei eska liezaieke, esleipen proposamena hartu baino lehenagoko edozein unetan, esleipenduna izateko jarrita dauden baldintzak betetzen dituela egiaztatuzeko dokumentazioa ekartzeko.

B. GUTUN AZALA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA – IRIZPIDE AUTOMATIKOAK

Gutun azal honetan bilduko dira lizitatuzaileak edo bere ordezkariak sinatutako proposamen bakar bat, agiri honi erantsitako ereduaren arabera idatzitakoa (III. eta IV. eranskinak), eta balorazio faktoreak, barne direla ordejarriak, joan-etorriak, langile-gastuak eta, kontratu dokumentuen eta indarrean dagoen legeriaren arabera, esleipendunaren kontura den beste edozein gastu.

C. GUTUN AZALA.- PROPOSAMEN TEKNIKOA

Memoria bat aurkeztuko da. Bertan, lanak egiteko jardunen deskribapen zehatza jasoko da, atal hauek barne hartuta:

a) Proiektuak eta horren gauzatzeak berekin dakartzaten arazoak aztertzea eta arazo horiek ebazteko proposamena egitea.

b) Lana eta zerbitzua egiteko erabiliko diren bitarteko pertsonal guztiak prest izatea: zerbitzuari atxikitako pertsonal teknikoaren edo unitate teknikoaren organigrama osatua aurkeztuko da. Lantaldearen metodologia eta antolamendua: zehaztu egingo dira proposatutako taldekide bakoitzak bete beharreko zereginak eta dedikazioa. Horiek ez dira, inola ere, agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian gutxienekotzat exijitutakoak baino txikiagoak izango, ez kopuruan, ezta dedikazioan ere.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

- c) Zerbitzua edo prestazioa osatzen duten lanak eta, hala badagokio, lan horiek osatzen dituzten eragiketa garrantzitsuenak finkatzea.

- d) 13. artikuluan agertzen diren balorazio irizpideen arabera proposamena baloratzeko beharrezkoa den beste edozein dokumentu, proposamen ekonomikoari buruzkoak salbuetsita.

11. ARTIKULUA.- KONTRATAZIO ORGANOA. EBALUAZIO BATZORDEA

- 1. Lizitazio honetan, Kontratazio Organoa Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa da.

- 2. Eskaintzak Ebaluazio Batzordeak ebaluatuko ditu, Administrazio Kontseiluak 2012ko uztailaren 27an onartutako kontratazio jarraibideen arabera. Batzorde hori osatuko dute, Administrazio Kontseiluko idazkariak edo hark eskuordetzen duen pertsonak ez ezik, kontratuaren arduradunak, Ekonomia Sailaren arduradunak, Sail Teknikoaren arduradunak eta Sail Juridikoaren arduradunak.

12. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

- 1. Proposamenak jasotzeko epea amaituta, Ebaluazio Batzordea Goikoa jauregian bilduko da eta, egintza publikoan, “C. PROPOSAMEN TEKNIKOA” gutun azalak irekiko ditu, eskaintzei dagokien balorazio txostena egingo du eta hori guztia dokumentu bidez jasoaraziko du.

- 2. Ondoren, egintza publikoan ere, “B. PROPOSAMEN EKONOMIKOA – IRIZPIDE AUTOMATIKOA” gutun azalak irekiko ditu, balorazioa egiteko.

- 3. Ebaluazio Batzordeak beharrezkoa irizten dion kasuetan, kontratua esleitzeko beharrezkoak diren txosten teknikoak egitea enkargatu ahal izango du.

- 4. Ez dira onartuko eskaintza baloratzeko funtsezkoak diren alderdiak ondo ezagutzea eragozten duten kontraesanak, ez egiteak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak, aztertu eta onartu den dokumentazioarekin bat ez datozenak, lizitazio tasa gainditzen dutenak edota ezarritako proposamen ereduarekiko nabarmen aldatzen direnak.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

5. Sailkatu ondoren, aurkeztutako proposamenak beheranzko ordenan sailkatuko dira, baldin eta neurrigabetzat edo ezohikotzat ez badira. Sailkapen hori egiteko, agiri honen 13. artikuluan adierazitako esleipen irizpideak kontuan hartuko dira.

Puntu berdinketarik baldin badago, zozketa egingo da berdinduta dauden proposatzaileen artean.

13. ARTIKULUA.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko proposamena erabakitzeke, Ebaluazio Batzordeak kontuan hartuko ditu jarraian adierazten diren irizpideak:

13.1 Proposamen ekonomikoa (gehienez 55 puntu)

Baztertuta geratuko dira ezarritako zenbatekoa gainditzen duten proposamenak.

% 0 eta % 20 arteko lizitazio beherapenatarako puntuazioari dagokionez, 2,50 aldiz izango da eskainitako ehuneko beherapena.

% 20tik gorako beherapenatarako, beherapen handieneko eskaintzari 55 puntu emango zaizkio eta % 20ko beherapena gainditzen duten gainerako eskaintzak proportzionalki interpolatuko dira.

13.2 Memoria teknikoa (gehienez 45 puntu)

Atal honetan, alderdi hauek baloratuko dira:

a) Proiektuak eta horren gauzatzeak berekin dakartzaten arazoak aztertzea eta arazo horiek ebazteko proposamena egitea: 20 puntu.

b) Lan-metodologia. Lantaldearen antolamendua, eta lana eta zerbitzuak egiteko erabiliko diren bitarteko teknikoen eskuragarritasuna: 12,5 puntu.

c) Zerbitzua edo prestazioa osatzen duten lanak eta, hala badagokio, lan horiek osatzen dituzten eragiketa garrantzitsuenak finkatzea: 12,5 puntu.

Bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketarik egongo balitz, eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu duen enpresaren proposamenari lehentasuna emango zaio. Oraindik ere berdinketa baldin badago, esleipena zozketa bidez egingo da.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

14. ARTIKULUA.- KONTRATUA ESLEITZEA. ESLEIPENAREN AURREKO DOKUMENTAZIOA

1. Kontratazio Organoak, esleipenaren aurretik, proposamen ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatuileari errekerimendua egingo dio, hamar eguneko epearen barruan (errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita), dokumentu hauek behar bezala zerrendatuta aurkez ditzan:

a) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotearen ziurtagiria. Horretarako, honako dokumentu hauen jatorrizkoak edo kopia kautotuak aurkeztu beharko ditu:

Kasuak kasu eskumena duten organoek luzatutako ziurtagiriak (HAKLaren 13., 14., 15. eta 16. artikuluetan jasotako eran eta ondorioekin), egiaztatuko dutenak indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.

Ekonomikoen jardueren gaineko zergan, kontratu honen xedeari dagokion epigrafean, agertzearen egiaztagiria. Kontratataren egoitza Donostiaz bestelako udalerrri batean edo Gipuzkoaz bestelako lurralde batean (probintzia esparrua) egonez gero, Donostian matrikulatu izana egiaztatu beharko du (gaikuntza nazionalaren kasuan salbu), eta dagokion alta aurkeztu, horren ordainketan egunean egotearen ziurtagiriarekin batera, bi kasuetan.

b) Behin betiko bermea ezarri izanaren ziurtagiria.

Esleipen zenbatekoaren % 5eko zenbatekoaz kontsignatuko da (BEZa kanpo). Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 96. artikuluan ezarritako eretan ezarriko da bermea. Banku abalaren bidez ezartzen bada, dokumentua II.a eranskinean agiri honi erantsitako eredura egokituko da. Abalak obligaziodun nagusiarekiko solidarioa izan behar du (ordena, eskusio eta bereizketa onurari espresuki uko eginda), eta lehen errekerimenduan ordaindu beharko da. Abalak iraunaldi mugagabea izango du, eta indarrean egongo da Erakundeak hura kitzeko baimena eman arte. Kauzio aseguru bidez ezartzen bada, Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 57. artikuluan ondorio horretarako xedatutakoari jarraituko zaio, eta dokumentua II.b eranskinean agiri honi erantsitako eredura egokituko da.

Behin betiko bermeak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 100. artikuluan adierazten diren kontzeptuei erantzungo die.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

Bermea itzuli eta kitatzeko, SPKLTBaren 102. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

c) Erantzukizun zibileko aseguru baten polizaren eta ordainketa egiaztagiriaren kopia. Aseguru horrek estali egin behar ditu obrako zuzendariak eta bere laguntza taldeak izan ditzaketen erantzukizunak, eraikuntza prozesuan duten esku-hartzearen eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legean adierazitako atribuzioen arabera, pertsonen alboko eta hurbileko eraikinei, ondasun higigarriei, etab. eragin liezazkieketen kalteen ondorioz, eta, oro har kontratu honen xede diren prestazioak gauzatzeagatik eragin lezaketen edozein kalteren ondorioz; akaberako elementuen gainean eragina duten kalteak barne direla.

Poliza horretan, esleipendunaz gainera, aseguruduntzat agertu beharko du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak.

Orobat, sinatzen den aseguru polizan, besteak beste, honako baldintza eta debeku hauek jasoarazi beharko dira:

Ezbeharririk balego, aseguratzaileak ez dio inolako kopururik ordainduko enpresa esleipendunari Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aurretiazko baimenik gabe eta ezbeharraren ondorioz erakunde horri kalte-galera guztiak ordaindu arte.

Aseguru polizan, era berean, jasoarazi beharko da lizitazio publiko hau arautzen duen agiriaren 14. artikuluari jarraituz egin dela eta, kontraesanik balego polizaren eta adierazitako artikuluan ezarritakoaren artean, azken horretan xedatutakoa nagusituko dela.

Aseguratzaileak bere burua behartuko du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari asegurua berritzearekin edo berori ez ordaintzearekin lotutako edozein gorabeheraren berri ematera. Hala, ez da inola ere etenik egongo haren indarraldian eta, hala badagokio, ordaintzeko dagoen ordainagiria adierazitako erakundeari pasatuko zaio. Erakundeak ordainagiri hori enpresa esleipendunaren kargura ordaindu ahal izango du, obra ziurtagiriaren eta, hala badagokio, behin betiko bermearien kontura.

Ezin izango da, inola ere, arrisku horien estaldura aldatu edo deuseztatu, ezta asegurututako kapitala ere, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren berariazko eta idatzizko baimenik gabe, eta esleipendunaren kontura izango da beti prima eta, hala badagokio, frankiziak ordaintzea.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

d) Kontratua gauzatzera zuzentzeko edo atxikitzeko konpromisoa hartu deneko bitartekoak benetan eskura izatearen egiaztatzea.

e) Lizitazio iragarkiei dagozkien zenbatekoak ordaindu izanaren egiaztatzea.

Atzerriko enpresek, esleipendun suertatzen badira, era berean eta betiere, enpresari atxikitako langile guztientzako istripu eta gaixotasun profesionaletarako mutua patronal bat izenpetua dutela eta haren kuotaren ordainketa egunean izatearen egiaztatzea aurkeztu beharko dute. Era berean, langile horiei guztiei Gizarte Segurantzaren alta emanda izatearen eta dagozkien kotizazioak egunean edukitzearen egiaztatzea aurkeztu beharko dute, baita Estatu eta Foru Ogasunarekin eta Donostiako Udalarekin dituzten zerga betebeharrak betetzearen egiaztatzea ere.

Aurretik adierazitako epean dokumentazio hori jasoko ez balitz, lizitatuzaileak eskaintza atera duela ulertuko da. Halakoetan, dokumentazio bera eskatuko zaio edo zaie hurrengo lizitatuzaileari edo lizitatuzaileei euren eskaintzen ordenari jarraituz.

Eskatutako dokumentazioa epean aurkezten ez bada, eskaintza justifikaziorik gabe ateratzat hartu ahal izango da.

2. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Ebaluazio Batzordeak hura kalifikatuko du eta, ahal dela, batzorde horren bilera berean egingo da kontratua esleitzeko proposamena. Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, konpon daitezkeen akatsak edo ez egiteak antzemanaz gero, interesdunari jakinaraziko zaio eta hiru eguneko epea emango zaio haiek konpontzeko.
3. Lizitatuzaileak haiek konpontzen ez baditu edo agiri honetan ezarritako eskakizunak betetzen ez baditu, eskaintza atera duela ulertuko da. Halakoetan, Ebaluazio Batzordeak Kontratazio Organoari proposatutako dio hurrengo lizitatuzailearen alde esleitzen dezan, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera, dagokion dokumentazioa ezarritako epean aurkezten badu.
4. Ebaluazio Batzordeak esleipen proposamena helaraziko dio Kontratazio Organoari, 13. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak kontuan izanda.
5. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak, hautabidez, ahalmena izango du kontratua proposamen ekonomiko onuragarrienari esleitzeko, esleipen irizpideen arabera, edo lizitazioa hutsik



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

deklaratzeko. Aldez aurretik kasuan kasuko txosten teknikoak ikusi ostean, kontratazioko organoak gehienez ere bi hilabete izango ditu kontratua esleitzeko, proposamenak zabaltzen direnetik zenbatzen hasita. Aipatutako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, enpresaburuak bere proposamena ateratzeko eskubidea edukiko du.

6. Esleipena kontratazio-organoak erabakiko du ebazpen arrazoitu bidez. Ebazpena hautagaiei edo lizitatzailerei jakinaraziko zaie, eta Kontratugilearen Profilean edo Kontratazio Organoaren kontratugilearen profilean argitaratuko da. Haiei eman beharreko informazioari dagokionez, 151. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da, baina informazio hori bidaltzeko epea bost egun baliodunekoa izango da.

Aurkeztutako proposamenak, onartu direnak nahiz ireki gabe baztertu direnak edo behin irekita baztertu direnak, kasuan kasuko espedientean artxibatuko dira. Errekurtsoak aurkezteko epea amaituta, ez baldin badu inork batere aurkeztu, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da.

Kontratazio Organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleitu beharko du kontratua.

Esleipena Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen Kontratugilearen Profilean argitaratu beharko da.

15. ARTIKULUA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

1. Kontratua formalizatzeko dokumentua gutxienez hamabost egun baliodun igaro ondoren emango da, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, eta kontratista esleipendunak eskatuta eskritura publikoan jaso ahal izango da. Kasu horretan, kontratista esleipendunaren kontura izango dira kontratua formalizatzek eta eskritura publikoan jasotzek sor ditzakeen gastu guztiak, zergak, etab.
2. Kontratazio Organoak esleipendunari errekerimendua egingo dio kontratua formaliza dezan gehienez bost eguneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, kontratuaren formalizazioa etetea berekin dakarren errekurtsorik jarri gabe aurreko paragrafoan ezarritako epea igaro ondoren. Berdin jardungo da errekurtsua ebazteko organo eskudunak etenaldia deuseztatuz gero.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

3. Enpresaburu esleipendunari eragoz dakizkiokeen arrazoiengatik ezingo balitz kontratua formalizatu, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak behin betiko bermea konfiskatzea erabakiko du (enpresaburu esleipendunak, hala badagokio, aurkez dezakeen erreklamazioaren mende), hark eragindako kalte-galerak osorik ordain ditzan.
4. Kontratua enpresen elkarre bati esleituz gero, horiek elkarre eskritura publikoan eratu izana egiaztatu beharko dute, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, baita elkarreari emandako IFZ ere.

III. - KONTRATUA GAUZATZEA

16. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoko zuzendari gerentea izango da kontratuaren arduraduna, eta berari egokituko zaio kontratua nola betetzen den gainbegiratzea eta beharrezko erabakiak eta jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela bermatzeko.
2. Zuzendari gerenteak, era berean, berariaz ahalmena eman dezake eginkizun horretan jarduteko.
3. Kontratuaren arduraduna izendatzeak eta hura bere ahalmenetan aritzeak ez du kontratista salbuetsiko kontratuaren xedea behar bezala gauzatzetik.

17. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak iraungo du berori sinatzen denetik lizitazio honen xede diren obrak behin betiko hartu eta likidatu arte, SPKLTBaren 303. artikuluko 2. eta 4. ataletan ezarritakoaren arabera.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

18. ARTIKULUA.- BITARTEKO PERTSONALAK ETA MATERIALAK

1. Bere lana egiteko, esleipendunak hainbat laguntzaile izan dezake agindupean. Titulu profesionalen arabera edo zehazki zer dakiten gorabeheran egingo dute lana eta lantaldea osatuko dute.
2. Esleipendunak, agiri honetan mintzagai ditugun lanak egite aldera, eskaintzan izen eta abizen zehaztu zituen fakultatiboak izendatu behar ditu, eta haien dedikazioa, ere, eskaintzan zehaztutakoa izango da. Hortaz, kontratua indarrean dagoen bitartean, dedikazio osoa dutenek ezingo dute beste inon lanik egin. Eta, era berean, Erakundeak berariaz baimena eman ezean, eskaintzan zehaztutako fakultatiboak ezingo ditu ordezkatu esleipendunak.
3. Kontratututako eginkizunek berekin ekarriko dute asteko gutxienez egun bateko dedikazioa arkitekto baten aldetik, obrako zuzendari gisa, eta arkitekto tekniko baten laguntza, “obraren gauzatze zuzendari” gisa, lanek irauten duten aldi osoan.
4. Kontratatistak zerbitzua edo prestazioa behar bezala eta kontratuan ezarritako epeen barruan emateko beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko guztiak jarri beharko ditu.
5. Erakundeak desagokitzat jotzen duen edozein elementu baztertu ahal izango du. Esleipendunak ebazpen horren aurka erreklamatu ahal izango du hamar egun naturaleko epean, zuzendariak idatziz egiten dion jakinarazpenetik aurrera.

19. ARTIKULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA

1. Kontratatistak hartuko ditu bere gain kontratua gauzatzearen arriskuak.
2. Agiri honetan, baldintza teknikoen agirian eta horren klausuletan ezarritakoa betez gauzatuko da kontratua, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratatistari haiek interpretatzeko ematen dizkion argibideen arabera.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

3. Kontratatistak berak hartu beharko du egiten dituen lanen eta ematen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, eta, kontratua gauzatzean zer edo zer egin gabe utzi duelako, edo akatsak direla-eta, metodo traketsak direla-eta, edo amaiera txarra dela-eta Administrazioari edo beste inori beste ondorioz eragin bazaio, erantzukizuna kontratistarena izango da, SPKLTBaren 305. artikuluan ezartzen denez.

Esleipendunaren kontura izango da hirugarrenei eragiten zaizkien kalteak ordaintzea.

4. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak erabakiko du enpresa kontratugileak egindako prestazioak kontratua gauzatu eta betetzeko ezarritako preskripzioekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak gauzatzeko eta antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio. Gainera, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea exiji dezake, kontratua gauzatzean ordena egokia lortzeko edo berrezartzeko. Zentzuzko epe bat emango dio horretarako.

5. Ezarritako bermealdia igaro arte, kontratatistak kontratatutako lanak ondo eginda egoteaz erantzungo du, baita lan horiek izan dezaketen akatsez ere, nahiz eta Erakundearen ordezkariak, egiaztapen, balioztapen edo ziurtapen partzialetan lan horiek ikuskatu edo egiaztatu izan, egiten ari ziren bitartean (ez dio horrek eskubiderik bat ere emango, ez da aske geratuko erantzukizun horretatik).

Lan akastun edo gaizki egindakoa Erakundeak berak emandako agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio bada, kontratatistak ez du erantzukizunik izango.

Erakundeak bete gabetzat joko balitu kontratuaren baldintza teknikoak edota prestazioak beharrezko baldintzak beteko ez balitu berori onartu ahal izateko, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 203.1 eta 204.2 artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoari jarraituko zaio.

6. Esleipendunak kontratua gauzatzeko finkatutako epearen barruan bete behar du kontratua, eta elkarren jarraian egiteko izendatutako epe partzialak ere bete egin behar ditu. Kontratatistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, ez baditu epeak garaiz betetzen, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak ez dio zertan aldeztatik ohartarazi. Kontratatistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, ez baditu epe partzialak garaiz betetzen, guztizko epea betetzea ezinezkoa dela arrazoiz uste izateko moduan, edo epe hori bete ez badu, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak aukeran izango du, edo kontratua deuseztatzea (horrek bermea galtzea ekarriko luke berekin), edo eguneroko zigorrak ezartzea proportzio honetan: kontratuaren prezioaren 601,01 euroko 0,12 euro. Kontratua deuseztatzea erabakiz gero, kontratatistari entzun egingo zaio.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

7. Aurreko paragrafoan jasotako arrazoieta edozein dela-eta, ez betetzeak iraungo balu, Erakundeak aukera izango du kontratua deuseztatzeko nahiz zigor hauek ezartzeko:
- Kontratuan zehaztutako gauzatze partziala ez betetzeagatik: kontratuaren prezioaren % 10.
 - Kontratuaren gauzatze akastunagatik: kontratuaren prezioaren % 10.
8. Esleipendunak enpresako zein langile izendatuko duen zehaztu beharko du, izen eta abizen. Onartzekotan, Erakundeak baldintza batzuk aginduko dizkie, eta langile horiek bete egin beharko dituzte. Esleipendunak, orri hauetan mintzagai ditugun lanak egite aldera, eskaintzan izen eta abizen zehaztu zituen fakultatiboak izendatu behar ditu, eta haien dedikazioa, ere, eskaintzan zehaztutakoa izango da. Eta, era berean, lanen zuzendariak berariaz baimena eman ezean, eskaintzan zehaztutako fakultatiboak ezingo ditu ordezkatu esleipendunak.

20. ARTIKULUA.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da onartzen prezioak berrikustea.

21. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak interes publikoko arrazoien ondorioz soilik aldatu ahal izango du kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 219. artikuluan eta HAKLAOan xedatutakoari lotuta, baldin eta horren ondorioz lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldarazten ez badira, SPKLTBaren 107. artikuluan ezarritakoaren arabera.

22. ARTIKULUA.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Ez da inola ere onartzen kontratua lagatzea edo azpikontratzea.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

23. ARTIKULUA.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA

1. Kontratua deuseztatzeko arrazoi izango dira SPKLTBaren 223. eta 308. artikuluetan xedatutakoak eta, oro har, kontratuko betebeharrak edozein ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Edonola ere, kontratua deuseztatzeko arrazoi izango dira:
 1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatze eskakizunak gerora ez betetzea.
 2. Publikoak edo nabariak ez izanik, kontratuaren xedearekin lotutako datuak edo aurrekariak, eta kontratua dela-eta ezagutzen direnak isilpean gordetzeko betebeharra ez betetzea.
 3. Kontratu honen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati lagatzea edo azpikontratatzea.
 4. Kontratuaren xede den zerbitzua uztea bidezko arrazoirik gabe. Zerbitzua utzi dela ulertuko da berori erregularitasun egokiaz egiten ez denean edota kontratua normaltasunez gauzatzeko beharrezkoak diren giza bitartekoekin edo bitarteko materialekin egiten ez denean.
 5. Agiri honetan eta dagokion kontratuan jasotako gainerako erantzukizunak eta betebeharrak ez betetzea.
 6. Kontratatzaileak edo enpresek ez betetzea lanaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dagoen araudia.
3. Artikulu honetan jasota dauden deuseztatze kasuetako edozeinetan Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak erabakiko balu kontratua deuseztatzea, automatikoki deuseztatuko da, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratatzaile egin beharreko jakinarazpen fede emailez bestelako eskakizunik gabe eta auzitegietara jo behar izan gabe. Horrek berekin ekarriko du, zigor klausularen kontzeptupean, ezarritako bermea galtzea, Erakundeari legokiokeen kalte-ordainari erantzuteaz gainera, kontratua deuseztatzeagatik hari eragindako kalte-galerak direla eta. Hala,



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

Erakundeak erabaki ahal izango du kontratua subsidiarioki gauzatzea, bere kabuz edo izendatzen dituen pertsonen bitartez, kontratistaren kontura.

Horrekin guztiarekin, ez da alde batera uzten kontratistaren erantzukizun orokorra, Kode Zibilaren 1591. artikuluan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoa.

24. ARTIKULUA.- LANAK AMAITZEA ETA HORIEK HARTZEA

1. Behin lanak amaituta eta, hala badagokio, gainerako prestazio osagarriak beteta, esleipendunak horiek onar ditzan eskatuko dio Erakundeari. Horretarako, baldintza teknikoen agiriari dagokion atalean aipatzen diren dokumentuak aurkeztuko dizkio. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren bulegoetan entregatuko da dokumentazioa. Esleipendunari entregaren agiria emango zaio.
2. Erakundeko teknikariek lan edo prestazio horiek aztertu eta egiaztatuko dituzte, eta, kontratuko baldintzak bete direla uste badute, hartzeko proposatuko dute.
3. Kontratistak kontratuaren xedea oso-osorik bete duenean –kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta Erakundearen gogora–, orduan joko da kontratua betetzat.
4. Kontratuaren baldintzak ez direla bete irizten bazaio, Erakundeko teknikariek, idatziz, antzemandako akats edo hutsegiteak konpontzeko jarraibide zehatz eta xeheak emango dituzte, horiek zuzentzeko epea finkatuko dute eta egokitzen jotzen dituzten oharrak adieraziko dituzte.
5. Kontratistak erreklamazioa aurkezten badu Erakundeko teknikariek egindako oharrei buruz, teknikariek Kontratazio Organoari bidaliko dizkiote erreklamazioa eta beraiek egindako txostena, hark auzia ebatz dezan.
6. Erakundeko teknikarien oharrak direla-eta esleipendunak ez baldin badu idatziz ezer erreklamatzeko, ados dagoela ulertuko da, eta ikusitako akats horiek zuzentzeko edo konpontzeko betebeharra daukala ematen zaion epean.
7. Esleipendunari akatsak konpontzeko eman zaion epea igarota akats horiek konpondu ez badira, kontratua deuseztatu ahal izango da. Halakoetan, esleipendunak behin betiko bermea galduko du eta Erakundeari



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

- kalteak ordaintzera behartuta egongo da, kalte horiek konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kopuruaz.
8. Dena dela, egindako lanek ez baldin badute –utzikeriagatik dela edo akatsengatik dela– kontratatutako prestazioa betetzen eta esleipendunaren errua bada, Erakundeak –Kontratazioko Erakundearen erabakiz– ez du zertan lan horiek hartu. Horrenbestez, ordaintzeko betebeharrak ere ez du izango, eta, ezer ordaindurik badu, atzera berreskuratzeko eskubidea izango du.
 9. Izapide horiek beteta, uste bada prestazioak bete egiten dituela beharrezko baldintzak, hartu egingo da. Kontratua hartzeko gehieneko epea urtebetekoa izango da, kontratuaren xedea entregatu edo burutzen den egunetik hasita.
 10. Prestazioak hartu izana akta batean zehaztu beharko da. Hori jasoarazteko, prestazioak hartzeko edo adostasuna erakusteko egintza formala eta positiboa egin behar du Erakundeak.
 11. Onarpen akta egiten den egunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan, kontratuaren likidazioa egin eta kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta likidazio horren emaitza ordaindu egin beharko zaio, hala balegokio.
 12. Bermealdia amaitu eta Erakundeak ez badu eragozpenik adierazi edo akatsen oharrik egin, egindako prestazioaren erantzukizunetik salbuetsita geratuko da kontratistak.
 13. Kontratututako prestazioa betetzearen inguruan oharpenik egiten bada, kontratistak badu jakiteko eta bere iritzia emateko eskubidea.

25. ARTIKULUA.- BERMEA ITZULTZEA

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratu honen likidazioa onartuta eta bermealdiaren hamabi hilabeteak igarota, bermearen gainean ezarri beharreko erantzukizunetik ez balego, berori itzultzeko erabakia hartuko da.

Donostian, 2016ko apirilean



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

I.a ERANSKINA

BEHIN BETIKO BERMEAREN ABAL EREDUA

..... (kreditu-erakundearen sozietatearen izen soziala) Erakundeak, ... IFZ duenak eta, jakinarazpen eta errekerimenduen ondorioetarako, ... kalea/plaza/hiribidea,, PK helbidea duenak, eta, haren izenean eta beraren ordezkari gisa, (ahaldunen izenak), egintza honetan hura behartzeko ahalorde askietsi(a)(e)z, indarrean dagoela/daudela dioten dat(et)ako eskritura publiko(ar)en indarrez –...(e)ko notario(ar)en aurrean emana(k) dira, zenbaki(eta)ko protokolo(ar)en arabera, eta indarrean daudela dioten ... (e)ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta-.

ABALATZEN DUTE

....., (IFK/IFZ) daukana eta kalea/plaza/hiribidea, ... helbide soziala duena, lehiaketa arautu zuen Ekonomia eta Administrazio Baldintza Berezien Agiriaren artikuluan xedatutakoa betez. Alde kontratugileek hura sinatuko dute eta kontratuaren parte izango da. Abala behin betiko bermearen kontzeptupean ezarriko da, Ekonomia eta Administrazio Baldintza Berezien Agiriaren artikuluan adierazitako kontzeptuei erantzuteko (hain zuzen, kontratu honen esleipenetik erator daitezkeenei: aholkularitzako eta laguntza teknikoko zerbitzuak egitea AU “LO.05 Txomin Enea” hirigintza esparruko a.300.6 partzeletan 162 etxebizitza gaitzeko eraikin baten eraikuntza obren zuzendaritzarako) Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aurrean. Hau da abalaren zenbatekoa: euro (..... euro).

Abala solidarioki ematen da ... (ipini esleipendunaren izena) obligaziodun nagusiarekiko, Kode Zibilaren 1830. eta hurrengo artikuluetan eta horiekin bat datozenetan aipatzen den eskusio eta bereizketa onurari espresuki uko eginda, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoaz.

Abal hori baliozkoa izango da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak berori deuseztatzea espresuki baimentzen ez duen bitartean.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Sin.:

Adierazitako datan inskribatu da abal hau Abalen Erregistro Berezian, zenbakiarekin.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behe / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

I.b ERANSKINA

BEHIN BETIKO BERMEAREN KAUIZOKO ASEGURU KONTRATUA

"..... zenbakiko ziurtagiria:

(1) jaunak/andreak (aurrerantzean, aseguratzailea),,
..... kalea helbidea duenak, egintza honetan hura behartzeko ahalorde
askietsiak dituen (2) jaunak/andreak behar bezala ordezkatuta,
..... indarrez,

ASEGURATZEN DU

(3) jauna/andrea,
..... IFZ/IFK duena, aseguru hartzaile gisa, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren
aurrean, (4) (letraz eta zifraz) zenbatekoraino, Sektore Publikoko
Kontratuei buruzko Legean, berori garatzeko araudian eta kontratua (aholkularitzako eta laguntza teknikoko
zerbitzuak egitea AU "LO.05 Txomin Enea" hirigintza esparruko a.300.6 partzeletan 162 etxebizitza gaitzeko
eraikin baten eraikuntza obren zuzendaritzarako kontratua) arautzen duen Ekonomia eta Administrazio
Klausula Berezien Agirian ezarritako baldintzetan, behin betiko bermearen kontzeptupean, asegurudunaren
aurrean lehen aipatutako arauen eta gainerako administrazio baldintzen arabera sor litezkeen betebeharrak, zigor
eta gainerako gastuei erantzuteko.

Asegurudunak bere erantzukizunpean aitortzen du bete egiten dituela Herri Administrazioen
Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 57.1 artikuluan ezarritako eskakizunak.

Prima ez ordaintzeak, bai ordainketa bakarra, zein lehenengoa edo ondorengoa izan, ez dio
aseguratzaileari kontratua deuseztatzeko eskubiderik emango; eta ez da kontratua iraungiko, ez
aseguratzailearen babesa etengo, ez aseguratzailea geratuko bere betebeharretatik aske, aseguratzailea bada
bermea ordaindu behar duena.

Aseguratzaileak aseguru hartzailearen kontra legozkiokeen salbuespenak ezin izango dizkio
asegurudunari aurkatu.

Aseguratzaileak bere gain hartzen du asegurudunari kalteak ordaintzeko konpromisoa Donostiako
Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren lehen errekerimenduan, SPKLTBan eta hori garatzen duten
arauetan ezarritako baldintzetan.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

Kauzio aseguru hau indarrean egongo da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak nahiz horren izenean legez gaitzen denak aseguru deuseztatzeko edo itzultzeko baimena ematen duen arte, SPKLTBan eta legeria osagarrian ezarritakoaren arabera.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Sinadura:"

OHARRA: Behin betiko bermeetarako, baldin eta abalatutako erakundea enpresaburuen elkarte bada, ez dira onartuko elkarte osatzen duten enpresetako bakarraren bermea direnak. Bermeak aldi baterako elkarteko enpresa guztientzat izango dira eta beren beregi jasota geratuko da erantzukizuna baterakoa eta solidarioa dela, ABEE osatzen duten gainerakoekiko.

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- (1) Erakunde aseguratzaileren izen soziala osorik adieraziko da.
- (2) Ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak.
- (3) Pertsona asegurudunaren izena.
- (4) Aseguru eratzeko zenbatekoa, letratan.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behe / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak, nazionalitatekoak, kalea, zk. helbidea duenak, eta zenbakiko NANA dunak (..... luzatua, datan), bere izenean edo enpresaren ordezkari gisa (enpresaren helbidea:, kalea; telefonoa, faxe eta IFK), horren ahalordea erantsita doalarik,

ADIERAZTEN DU

I.- Jakinaren gainean egonda aholkularitzako eta laguntza teknikoko zerbitzuak egiteko AU “LO.05 Txomin Enea” hirigintza esparruko a.300.6 partzeletan 162 etxebizitza gaitzeko eraikin baten eraikuntza obren zuzendaritzarako prozedura irekiko kontratua esleitzeko lizitazio iragarkiaren berri, eta, era berean, jakinaren gainean egonda administrazio baldintzen eta baldintza teknikoaren agiritan ezarritako baldintza, eskakizun eta betebeharen berri (horien edukia termino guztietan ezagutzen duela eta onartzen duela adierazten du espresuki), konpromisoa hartzen duela adierazitako kontratua gauzatzeko, eskaintako baldintzetan, eskaintza honen arabera eta zenbateko hau finkatuta:euro +euro BEZ = euro.

Emaitzako prezioek bere baitan hartzen dituzte esleipenaren xede diren lan guztiak, agiri honetan adierazitakoak, baita berori gauzatzean sor litekeen edozein gastu ere, barne direla joan-etorriak, pertsonal gastuak, administrazio gastuak, zergak, tasak eta aplikatzekoa den beste edozein gastu.

II.- Ordezkatzen dudana enpresak irekitzeko, ezartzeko eta abian jartzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen eskakizun eta betebeharen guztiak betetzen dituela, baita Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatzeko ere.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Sin.:



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behe / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

III. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA, ALDI BATERAKO ENPRESABURU

ELKARTEAK AURKEZTEN DIRENEAN

..... jaunak/andreak nazionalitatekoak, kalea,
..... zk. helbidea duenak eta zk. daukanak, bere izenean edo enpresaren izenean
(helbide hau du:, kalea, zk.; telefonoa, faxe eta
IFK).

..... jaunak/andreak nazionalitatekoak, kalea,
..... zk. helbidea duenak eta zk. daukanak, bere izenean edo enpresaren izenean
(helbide hau du:, kalea, zk.; telefonoa, faxe eta
IFK).

Konpromisoa hartzen dute aldi baterako enpresaburuaren elkartearen eratzeko (jarri
bakoitzaren partaidetza) partaidetzaz, eta, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aurrean
guztiak bete-betean ordezkatzeko, elkartearen ordezkari izendatzen dute jauna/andrea,
..... NANA duena, nazionalitatekoa (helbide hau du:, kalea,
zk.; telefonoa, faxe). Horren ahalordea eta eratzeko eskritura Donostiako Etxegintza Enpresa
Erakunde Publikoari entregatuko zaizkio obren esleipendun izanez gero, dagokion merkataritza erregistroan
behar bezala inskribatuta, beraren IFKrekin batera.

ADIERAZTEN DUTE

I.- Jakinaren gainean egonda aholkularitzako eta laguntza teknikoko zerbitzuak egiteko AU "LO.05
Txomin Enea" hirigintza esparruko a.300.6 partzeletan 162 etxebizitza gaitzeko eraikin baten eraikuntza
obren zuzendaritzarako prozedura irekiko zerbitzu kontratuaren lizitazioaren berri, eta, era berean jakinaren
gainean egonda baldintza berezien eta teknikoaren agiritan ezarritako baldintza, eskakizun eta betebeharren
berri (horien edukia termino guztietan ezagutzen duela eta onartzen duela adierazten du espresuki),
konpromisoa hartzen duela adierazitako kontratua gauzatzeko, eskaintako baldintzetan, eskaintza honen
arabera eta zenbateko hau finkatuta:euro +euro BEZ = euro.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

Adierazitako ekitaldietarako emaitzazko prezioak bere baitan hartzen ditu esleipenaren xede diren lan guztiak, ekitaldi bakoitzari dagokionak, agiri honetan adierazitakoak, baita berori gauzatzean sor litekeen edozein gastu ere, barne direla joan-etorriak, pertsonal gastuak, administrazio gastuak, zergak, tasak eta aplikatzekoa den beste edozein gastu.

II.- Ordezkatzen dudan enpresak irekitzeko, ezartzeko eta abian jartzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen eskakizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela, baita Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatzekoak ere.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Sin.:

Sin.:



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

IV. ERANSKINA

JAKINARAZPENAK JASOTZEKO BITARTEKO LEHENETSIA AUKERATZEA

..... jaunak/andreak, NAN zk. duenak, nire izenean edo
..... enpresen ordezkari gisa, aholkularitzako eta laguntza teknikoko zerbitzuak
egiteko AU “LO.05 Txomin Enea” hirigintza esparruko a.300.6 partzeletan 162 etxebizitza gaitzeko eraikin
baten eraikuntza obren zuzendaritzarako zerbitzu kontratuaren lizitazioarekin lotuta, honen bidez, lizitazio
hau (..... espedientea) dela-eta Erakundeak egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko bitarteko
lehenetsizat, honako hau aukeratzen dut:

..... Faxe:

..... Posta elektronikoa (irakurri eta jaso izanaren egiaztapenaz):

(*X batekin adierazi aukeratutako bitartekoa, baita hautatutako bitartekoaren datua ere.

Era berean, intereseko datuak adierazten dira:

Harremanetarako telefonoa(k):

Posta elektronikoa helbidea (goian adierazi ez bada):

Faxe: (goian adierazi ez bada):

Posta helbidea:

(Enpresak) – enpres(ar)en IFK:

(Pertsona fisikoak) – lizitatzailaren NANa:

.....

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Sin.:

Oharra: Jakinarazpenei arintasun handiagoa ematearren, gomendatzen da enpresa edo pertsona lizitatzailaren posta elektronikoa edo faxe aukeratzea. Berori guztiz baliozkoa izango litzateke jakinarazpenen ondorioetarako, berori izateagatik lizitatzailak adierazitako bitartekoa.



Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

Mari kalea, 1, behea / Calle Mari, 1, bajo - Tel. 943 48 17 65 - Faxe 943 32 79 20 - etxegintza@donostia.org - www.donostia.org/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián

Bitartekorik aukeratu ezean, adierazitako helbidera joko da jakinarazpen zerbitzuaren edo ohiko postaren bidez.

